



FOTO SOL

GERRA OSTEKO GIROA . Guda zibilaren osteko garaiak izan ziran hareek; militarrek-eta egindako desfileak be agertzen dira argazkietan.

Gerra osteko uriari begiratua

‘ERRETRATUEK’ 1949-1977. Foto SOL argazki dendeak 50. urteurrena bete dauela eta, garai haretako Durango erakutsiko dabe, Etxezarreta Jauregian

Aitziber Basauri | **DURANGO**

Gerra Zibilaren osteko garai hareetako Durango erakusten dauen *Erretratuek* 1949-1977 argazki erakusketea zabalduko dabe, gaur, 19:30ean, Arte eta Historia Museoa. Foto Sol argazki dendeak 50. urteurrena betetan dauela eta, garai haretan jazotakoaren testigantza batzen daben 50 argazki bildu dabez; orduan bizitakoak ezagutzeko aukerea izango da, zemendiaren 4ra arte.

Gerra osteko, garaiotan, zabaldu eben Ezkurdin Foto Pepe argazki dendea, 1949an. Alfonso Soldevilla eta Tatxo Egiak hartu eben, handik gitxira, Foto Sol bihurtuta. Azken urteetan, baina, Angoitia anaiak euki dabe argazki estudioaren ardurea; 1953tik gaurdaino.

«Durango uria bera agertzen da argazkietan; bertoko eguneroko bizimodua, pertsona eta famili normalak, ezkontzak, ma-

nifestazioak...», dino Jose Luis Angoitia, oraindino be dendan lanean diharduanak. «Beharren hasi ginanetik, beti jarraitu deutsagu bide berari; gizarteko hainbat gertaeretan atara doguz argazkiak, eta argazkia atara deusagun pertsonea ondo agertzea izan dogu helburua».

Gertaera historikoak argazkitan

Historiak lagatako testigantza be jasoten dabe. «Guda zibila igarota Gobernadorea etorten

zaneke argazkiak, edo Francoren ministro izandako Esteban Bilbao durangarrari eginkoa batzen dira argazkiak. Egozan desfile militarrek be bai. Gizarteko hainbat alorreko pertso-

nalidadeak agertzen dira: eliza ingurukoak, militarrek...».

Argazki piloak batzen dabez, historiaren 25 urteok; eta aukeraketea ez da lan makala izan, Angoitia esanetan: «Tope-tan hasi, eta geu be harritu gara; baleiteke zelabait motz geratu




FOTO SOL

ZESTA PUNTA PARTIDUAK. Durango uriko eguneroko bizimodua batzen dau erakusketeak. Argazkian zesta puntan jokatzeko gertetan.

izana, baina, danak aurkeztea ezinezkoa litzake».

Beste askoren artean erbesteratuek Euskal Herrian egindako lehen agerraldiaren testigantza be jaso dabe. «Durangon, Jesuitetan agertu ziran lehenengoz jenteaurrean, Telesforo Monzonegaz batera, Jokin Goristidi, Mario Onaindia, Xabier La Arena eta Serrano Izko, besteak beste. Espainiako gobernuak Europako zenbait herrigaz eukan akordioa medio, Euskal Herrikan kanpo egotera behartuak egozanak, ihes egin eben, eta Euskal Herrikan joian Abialdia Durangotik igarotetan ager-

tu ziran jenteaurrean; 1977ko garagarrilaren 21ean», azaldu dabe.

Foto Solen historia eta argazkiok batzen dabezan liburua be argitaratu dau, Arte eta Historia Museoa. Bertan, Unai Iturriaga, bertsolariak, Deia egunkari-kazetari Jose Luis Iturrietak eta Jesus Maria Arruabarrena, argazkilari eta gidoilariak, besteak beste, idatzitako testuak batuko dira. Era berean, *Foto Profesional* aldizkari-zuzendari Manuel Lopezek egindakoa. Liburuaren 600 ale kaleratu dira, eta gaurtik Arte eta Historia Museoa eskuratu leiteke.

ZORNOTZA

Kamioiendako aparkalekua jarriko dabe, Boroa auzotik gertu

A.B |

Kamioiendako aparkalekua egokituko dau Zornotzako Udalak, Boroa auzotik gertu. A-8 autopistara sartzeko biribilguneren eta Finanzaute enpresearen artean, 10.000 metro koadroko lursaila atonduko dabe. Bertan, 50 bat kamioiendako lekua egongo da, Begoña Azar-loza alkateak dinoanez.

Oinezkoehi ahalik eta eragin gitxien eragiteko Udalak daroan dinamikea jarraitu gura dabe Azar-lozak nabarmendu daue-nez; «halandabe, kamioiei be erantuzn bat emon behar deutsegu. Oso garrantzitsua deritxogu kamioiak herrigunetik atartea eta horreendako leku definidu bat egokitzea».

Gaur egun, enpresa askok euren kamioiendako lekua daukie Zornotzan, alkateak argitu dauenez. «Dana dala, batez be, asteburutan, 40-50 bat kamioi lagaten dira aparkauta A-8 autopistarako sarrera zaharrean; horre-etatik %65 bat Zornotzakoak dira. Eta horreei erantzun bat emon gura jake, aparkaleku egokia egokituta». Aparkaleku barria behin behinekoa izango dala generatu dau.

Behin-behineko aparkalekua izango da

Autopistarako sarrera zaharreko ingurua barriro antolatu gura dau Udalak. «Jaurlaritzak aparkaleku handi bat egin gura dau Galdakaon. Halandabe, gertu egon artean lau urte igaro leiteke. Dana dala, behin aparkaleku hori egin ostean, zehaztu barik dogu Zornotzan egokituko doguna kendu egingo dogun ala ez».

Arau Subsidiario barrietan, kamioiendako lekua, Ibarra auzoan egokitzea aurreikusten zan. «Baina leku txikia da, eta bertara sartzeko ez da bape erraza», dino Azar-lozak. «Boroa inguruan, barritz, herrigunea igaro barik, oso sarrera ona daukie autopistatik zein Durangotik etorrita be». Egitasmoaren lehen onarpena egin dabe, eta, 80 milioi erabiliko dabez.